

Amets Irastorza Ezkiaga

D maila • 2 saria

Kaixo! Amets Irastorza naiz. Hamahiru urte ditut eta La Salle ikastetxean ari naiz ikasten. Asko poztu nau sari honek. Izan ere, etxealdian harrapatu nau berriak eta animoak eman dizkit. Nahiz eta orain ezin, saskibaloiak nire zaletasunen artean jarraitzen du. Gogotsu nago noiz aterako eta BKLrekin entrenamenduak berriz hasteko. Aurten bertsoan euskaraz hitz egin beharraz aritu naiz. Ea gustatzen zaizuen! Eskerrik asko!



Doinua: Kontu barri bat suzeditu da II

AITTUZ

Kopla hauekin zabaldu nahi dut
bihotzean dudan pena,
Asko maitatu, gutxi hitz egin
ohi dugulako Euskera.

Gauza bat esan, bestea egin,
hori egunero kezka.
Bitasun honek Euskal jendea
bai noraezean gauzka.

Haurrei eta txakurrei euskaraz
ari da gizartea maiz,
helduen mundua da erdaraz
aritzen jo ta su lasai.

Guk haiek ditugu ba eredu,
zer egingo diogu ba!
Kontu triste hau ezinbestean,
sorgin-gurpil bihurtu da.

Zaila da gaztea izatea
ta euskaraz aritzea,
askorentzat euskara da eta
eskolako agintea.

Lagunak erdaraz ari eta
nola hasiko ni euskaraz?
Helduek egiten ez dutena
egin beharra al daukat?

Gu omen gara etorkizuna,
herri honen itxaropen.
Batenbatek bidea ireki
beharko digu halere!

Euskarari bai guk zor diogu
garen hori azaltzea.
Azal dezagun indartsu denok
ahobizi adorea!